



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindeguia Elizalde
Miren Ilarregui Belarra

2025eko martxoaren 28an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- 2025eko otsailaren 13 eta martxoaren 3ko aktak onartzea.

2. 2023KO KONTUAK IXTEA.

Udalbatza kontuen batzorde gisa arituz, 2023ko kontuen erakustaldi publikoan alegazioarik ez dela izan ziurtatu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta **Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- 2023ko kontuen likidazioa behin betiko onartu eta ixtea.

2.- 2023ko kontuen likidazioa Nafar Gobernura bidaltzea.

*****AINHOA BEREAU ALTXU ZINEGOTZIA SARTU DA*****

3. ITURENGO UDALERRIAN, HAINBAT BIDE ZOLATZEKO BALIOETSITAKO MEMORIA TEKNIKOA ONARTZEA (2026-2028 ALDIA TOKIKO PROGRAMAZIOA).

Udalak etxebizitzak daude herri bideak (Ameztieta eta Garatuma) eta Aurtiz eta Latsagako ur depositora daraman bideen konponketak beharrezkoak direla aurrekusia du eta ikusirik 8/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, toki inbertsioen plana arautzen duena eta 570E/2024, abenduaren 23ko Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren ebazpena



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2026-2028 urteendako plangintzarako, MENDIKOA Proyectos Técnicos enpresari memoria egitea eskatu zitzaion.

Gaia azaldu eta gero eta Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez **hurrengo erabaki du:**

1. Konpromisoa hartzea toki inbertsioen plan horrek bere baitan hartzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko **“ITURENGO UDALERRIAN, HAINBAT BIDE ZOLATZEKO BALIOETSITAKO MEMORIA TEKNIKOA ONARTZEA (2026-2028 ALDIA TOKIKO PROGRAMAZIOA)”** dagokiona.
2. **“ITURENGO UDALERRIAN, HAINBAT BIDE ZOLATZEKO BALIOETSITAKO MEMORIA TEKNIKOA ONARTZEA (2026-2028 ALDIA TOKIKO PROGRAMAZIOA)”** proiektua onestea MENDIKOA.Proyectos Técnicos enpresak eginga.
3. 2026/8rako sartzea eskatzea.

4.BALORAZIO PONENTZIA EGUNERATZEKO PROZEDURAREN HASIERA.

Nafarroako Lurralde Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 35.artikuluak ezartzen du katastro balioak eguneratu egin behar direla haiek onetsi edo berrikusi zirenetik 5 urte igaro ondoren.

Ituren udalaren kasuan 2019.urtean ponentzia onartu zen, beraz 5 urteko epea igaro da. Gaia aztertu ondoren, Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

“De conformidad con el artículo 20 de la Ley Foral 7/2022 de 22 de marzo, que regula el Fondo de Transferencias corrientes, aquellos municipios que no tengan actualizada la ponencia de valoración o que no hayan iniciado el proceso de revisión, conforme a la legislación vigente, verán disminuido en un 10% el importe del fondo.

Por otro lado, el artículo 35 de la LF 12/2006 de 21 de noviembre, del registro Territorial y de los catastros de Navarra, establece que deben actualizarse los valores catastrales cuando hayan transcurrido 5 años desde su aprobación o revisión.

Atendido que la última ponencia de valoración del Ayuntamiento de Ituren fue aprobada el día 19 de julio de 2019, el Pleno por unanimidad acuerda

Primero. - Iniciar el procedimiento de actualización de la ponencia de valoración.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Segundo. - Notificar el presente acuerdo a la Sección de gestión económico-financiera del Departamento de Cohesión Territorial del Gobierno de Navarra.”

5. AURTIZKO FRONTOIA BERRITZEKO OBRAREN LANAK ESLEITZEA.

Iturengo Udalan, 2025eko martxoaren 20an 08:00tan, Kontratazio Mahaia bildu zen, Dokumentazio Administratibo eta Ekonomikoa irekitzeko.

Administrazio Klausula Partikularren Pleguan xedatu bezala, “**Aurtizko frontoia berritzeko obraren lanak**” esleipenari dagokionez, lizitaziora aurkeztu diren enpresen dokumentazio administratiboa idazkariak akta aurkezten du, hurrengoak onartuak egonda:

- M.A. Arrixko Igeltseritza S.L.
 - Alberto Gonzalez Purroy, Construcciones Ariztimuño Canflanca Hnos S.L
- enpresaren izenean.

Ondoren, dokumentazioa ekonomikoaren emaitzaren akta:

Nº	EMPRESA	Precio	Puntos
1	M.A. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L	91.508,90€	100 puntos
2	CONSTRUCCIONES ARIZTIMUÑO CANFLANCA HNOS S.L	99.029,00€	92,41 puntos

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, osoko bilkurari behin behineko proposamena aurkezten dio “**Aurtizko frontoia berritzeko obraren lanak**” esleipena M.A. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L enpresari egitea 91.508,90 eurotan, BEZ Gabe.

Espedientea ikusirik, alkateak bozkatzera deitu du eta Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiak bat etorrira, aho batez **hurrengoak erabaki du:**

1. **M.A. ARRIXKO IGELTSERITZA S.L.** enpresari esleitzea “**Aurtizko frontoia berritzeko obraren lanak**” kontratazioa, 91.508,90 eurotan (Bez gabe).



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

2. Enpresa esleipendunari kontratua formalizatzeko agirietan eskatzen diren agiriak aurkezteko eskatzea. Pliegoen 8 puntua.
3. Iturengo alkateari kontratua sinatzeko boterea ematea.
4. Erabakia enpresa esleipendunei eta gainerako lizitatzailerei jakinaraztea.

**** Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aho batez aitortu ostean, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau eztabaidatu da:**

- 2025eko otsailaren 13an ospaturiko osoko bilkuran Udal Plan Orokorraren alegazioak aztertu ziren eta 31 alegazio aurkeztu zirela aipatu zen.

Alegazio guztiak ikusirik, idazkariak bi gehiago direla ohartu da (Mikel Gereka Zelaia jaunak eta Malerreka Bizirik plataformak aurkeztutakoak hain zuzen ere). Udal arkitektuarekin egindako bileran bi alegazio hauek aztertu ziren. Beraz, gaia azaldu eta gero Osoko Bilkurak, bertaratutako guztiak bat etorrita, aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1.- Udal arkitektuek UPOri egindako bi alegazioei emandako ebazpen proposamenak onartzea.

2.- Akordioa interesatuei jakinaraztea eta bakoitzari bere txostena bidaltzea.

6.- ESKAERAK

6.1.- Amaia Izagirre Altuna andreak, Añorgako udaleku ibiltariaren izenean, Aurtizko pilotalekua erabiltzeko baimena eskatzen du. Azaltzen du, abuztuko 27ko goizian sukaldariak iritsiko direla eta eguerdia aldera 30-40 nerabeak, Aurtizko pilotalekuan lo bat egiteko. Komunak edo dutexak erabiltzeko aukera dagoen galdetzen dute.

Ikusirik, Aurtizko pilotalekuan obretan ariko direnez eta komunak ez daudenez, Iturengo kapilla leku egokiagoa dela eztabaidatzen da. Leku estalia dute eta erabili dezaketen komunak. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Iturengo kapillaren erabilera onartu, Añorgako udaleku ibiltariarekin etortzen direnak abuztuaren 27ko gaua pasatzeko .

2.- 200 euroko fidantza bat jarri beharko da, izan litezkeen kalteengatik fidantza gisa. (Kontua: Nafarroako Rural Kutxa ES05.3008.0050.32.0702065020)

3.- Kapilla eta inguruak (plaza, erreka,...) garbiak utzi behar dute.

4.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

6.2- EHIGEko lehendakariak Euskal Eskola Publikoaren 32. Jaia 2025eko ekainaren 1ean Urduñan ospatuko dela aipatzen du eta Iturengo udalari dirulaguntza eskatzen dio. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- 100 euroko ekarpen ekonomikoa egitea.
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

6.3- Luis Michelena jaunak 5.poligonoko 39.lurzatian dauden bi pagoa aprobetxamenduaren eskaera egin zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.-Bi pagoen aprobetxamendua onartzea.
- 2.- Aprobetxamenduaren truke 19,80 euro kobratzea, basozainak egindako balorazioaren arabera.
- 3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.”

6.4.-Iturengo Pulunpa eskola publikoak Malerreka eskola txikien topaketa apirilaren 16an Ituren ospatuko dela azaltzen du eta horretarako eskaera batzuk ditu: Plazan egongo diren bi karpen erabilera, gazteen mahaiak eta udaletxeko plantxa eta sua talo tailerra egiteko. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.-Plazan egongo diren karpen erabilera, plantxa eta sua eskaera onartzen da.
- 2.- Mahaiei buruz gazteekin egon beharko dira.
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

6.5.-2023an, Iturengo udalak, Basoak Kudeatzeko Ataletik egindako eskariari erantzunez, landaketa proiektu bat aurkeztu zuen Next Generation diru funtsen bidez egin ahal izateko. Jasotako proiektua honako hau zen ARKAXURI ETA BERROARTE ALDEAN BASOA BERRITZEKO PROIEKTUA, ITUREN UDALERRIAN // PROYECTO DE REPOBLACIÓN FORESTAL EN LOS PARAJES DE ARKAXURI Y BERROARTE EN EL T.M. DE ITUREN.

Esleipena egin ondotik, 2024ko udazken eta 2025ko negu garaian lanak burutu dira, Oihan Basogintza SL enpresaren aldetik. Lanek **57.665,04 €**tako kostua izan dute. Lanak Nafarroako Gobernuak bere gain hartu ditu, aipatutako Next Generation europar funtsen bidez %100ean, bai eta eta Obra Zuzendaritzaren kostua ere.

Lanak bukatu direla ikusirik, Iturengo Udalari, terrenoen jabe den aldetik, honako hau eskatzen zaio, lanen onespina eta bidalitako kartela herriko iragarki tabloian jartzea. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1.- “ARKAXURI ETA BERROARTE ALDEAN BASOA BERRITZEKO PROIEKTUA, ITUREN UDALERRIAN” lanak onestea.

2.- Kartela herriko eta egoitza elektronikoaren iragarki taulan jartzea.

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea

7.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (13/2025- 25/2025 ebazpenak).

8.- MOZIOAK

Aurkeztutako bi mozioak ikusirik, udal buruak 2024ko irailaren 24ko udal bilkuran bi mozioak onartu zirela ohartarazten du eta jakinarazpenak bidali zirela konprobatzen da. Jakinarazpena berriro bidaliko zaie.

9.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentutik ebazpena Miguel Angel Ezcurrak eskatutako baimena onartuz--- Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko Ingurumeneko departamentura baimena eskaera Balnca Urroz eta Miguel Angel Ezcurra—CNAI formakuntza digitalari buruz-----Kantauri Hidrografikoaren konfederazioaren txostena José Urroz titularra den erreka aprobetxamenduaren eskubidearen amaiera bilera data emanaz; Pedro Joaquin Irigoyen Perurena Intzarte ura hartzeko baimena--- Abere ekoizpenaren atalaren ebazpenak abeltzaintza esplotazioan alta emanez: Igor Mindeguia Goñi- ardiak.

11.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude galdera eskaerarik.

Eta bertzerik ezean, 17:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.